


Euskal AEko eraikuntza-kostuak %0,2 jaitsi ziren 2018ko abenduan aurreko hilaren aldean

2017ko abenduaren aldean %2,1 gehitu ziren kostuak

2018ko abenduan, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,2 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %2,1 gehitu zen, EUSTATen datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Lan-eskuaren kostua lehengoan da (%0,0) aurreko hilaren aldean; lehengaien kostuak %0,3 jaitsi ziren.

Etxegintzako lehengaien kostua %0,2 jaitsi da abenduan; Obra Zibilarenena, %1,3. Urte artean, bi azpisektoreetan zeinu positiboak dira, zeren Etxegintzan %2,2 gehitu baitira lehengaien kostuak eta %2,0 Obra Zibilean.

Sektoreak kontsumitutako lehengaietan urte artean (2018ko abendua 2017koaren aldean) prezio-hazkunderik handienak: *Industria kimikoa*, %3,4rekin, eta *Metalurgia* eta *Mineral ez-metalezkoak*, %3,3rekin kasu bietan. Kontrako norabidean, prezio-jaitsierekin lehengaietan azken hamabi hiletan: *Petrolio fintzea*, %1,5eko jaitsierarekin; *Kautxu* eta *plastikoa*, %0,6koarekin; eta *Material elektronikoa*, %0,5ekoarekin.

EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2018ko Abendua

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	104,5	-0,2	2,1	2,1
Eraikinak	104,5	-0,1	2,1	2,1
Obra zibila	104,1	-1,0	1,9	1,9
LEHENGAI	102,9	-0,3	2,1	2,1
Eraikinak	103,0	-0,2	2,2	2,2
Obra zibila	102,4	-1,3	2,0	2,0
LAN-ESKUA	109,8	0,0	1,8	1,8

Oinarria 2010=100
(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62